

Astekaria

# BARRREN

elgoi



# korrika



*Maite dugu gure herria*  
**DENOK EUSKARAZ!**



A.E.K. EUSKALTEGIA, Plaza Txikia 3, Tlfnoa 74 13 32

## 3 LAU HANKATAN

"Diotenez, herri honetan batek ofizialtzat jotzen diren bi hizkuntzetako edozeinetan bere ikasketak burutzeko eskubidea dauka". **Diana Perez de Albeniz**

## 6 ERREPORTAIA: AINTZINAKO IKAZKINEN ERARA

Ikazkina, Euskal Herriko ogibide aberatsa izan zena, aintzinako aldietara begira jartzen gaituena, gertuagotik ezagutzeko parada da honoko hau.

## 8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZER DA ZURETZAT ABERRI EGUNA?

**Kurutz Castrillejo:** "Niretzat Aberri Eguna, euskaldunak garela aldarrikatzea(...) Nazio eskubideak erreibindikatu."

**Felix Arrizabalaga:** "Egun hau tolerantzia eta askatasun osoarekin ospatu ahal izatea litzateke neure gogoa."

## 12 BERBETAN

"Asko gustatzen zait bidaiatzea". **Mariano Irigoien.**

## 14 KIROLA:

GAIA: URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA

ELKARRIZKETA: **Jabi Ferreño:** "Mota gutzietako arrainak gutxitu dira"

## 16 ELKARTEETATIK BUELTAN

LA UNION: KIROLA ETA EHIZA EZKONDU NAHIAN

## 17 KULTURA

"DENOK MAITE DUGU GURE HERRIA EUSKARAZ"

TXANDAK

### FARMAZIAK:

13, larunbata: YUDEGO

14, igandea: YUDEGO

15, astelehena: BIDASOLO

16, asteartea: BIDASOLO

17, asteazkena: BIDASOLO

18, osteguna: BIDASOLO

19, ostirala: BIDASOLO

### OKINDEGIAK:

14, igandea: EIZAGIRRE



## PREMIAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

|  |        |
|--|--------|
| Anbulategia: Larrialdiak .....                   | 741155 |
| Txanda hartzeko.....                             | 743354 |
| Alkoholiko Anonimoak .....                       | 740385 |
| D.Y.A (anbulantzia).....                         | 464622 |
| Gurutze Gorria .....                             | 743864 |
| Mendaroko Ospitala.....                          | 756264 |
| Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa) ..... | 743936 |
| Odol Emaileen elkarte.....                       | 741190 |

### GARRAIOAK

|                        |        |
|------------------------|--------|
| Eusko Trenbideak ..... | 740442 |
| PESA (Eibar) .....     | 112131 |
| Taxi Geltokia .....    | 740898 |

### UDALA

|                                  |        |
|----------------------------------|--------|
| Euskara Zerbitzua .....          | 744366 |
| Kultura eta Kirol Zerbitzua..... | 742158 |
| Ongizate zerbitzua .....         | 743736 |
| Udaletxea .....                  | 741050 |
| Udaltzaingoa .....               | 741394 |

### BESTELAKOAK

|                               |        |
|-------------------------------|--------|
| Caritas .....                 | 740142 |
| IMI .....                     | 741196 |
| Kontsumo Bulegoa (OMIC) ..... | 743088 |
| Liburutegia.....              | 743525 |
| Musika Eskola.....            | 742145 |
| Polikiroldegia.....           | 741361 |
| Postetxea .....               | 741547 |


### HIRUGARREN ADINA

|                          |        |
|--------------------------|--------|
| San Lazaro Egoitza ..... | 740296 |
| Zaharren Biltokia .....  | 740526 |

### IKASTETXEAK

|                       |          |
|-----------------------|----------|
| Herri eskola.....     | 74 08 79 |
| I.M.H.....            | 74 41 32 |
| Institutua .....      | 74 02 67 |
| Ikastola.....         | 74 27 00 |
| L.H.I.....            | 74 31 00 |
| Pilar Ikastetxea..... | 74 13 31 |

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



**L**AU HANKATAN



Diana Perez de Albeniz

# Noiz arte UPV?

**D**iotenez, herri honetan batek ofizialtzat jotzen diren bi hizkuntzetako edozeinetan bere ikasketak burutzeko eskubidea dauka, ordaindu beharrekoa bete ondoren, jakina, dohaineko ikastetxe publikoetan ere ordaindu beharra bait dago. Ez daukat gorabehera horietan orain murgiltzeko asmorik, baina bai aurrean aipaturiko hizkuntzaren inguruko zenbait komentaketa idazteko gogoia.

Aurretiko ikasketetan buruko ehun eta hamairu ile utzita, matrikula ordaindu ondoren poltsikoak zulaturik, paper zaharrok formaltzeko hainbat ordutako kola jasan eta gero, Euskal Herriko Unibertsitatea deitzen denekoan zure ama hizkuntza euskaraz ikasi ezin duzula topa dezakezu. Non dago, beraz, eskubide hori? Batzuek nahiko zorte ona izan dugu, eta, bizpauri ikasgai kenduta, euskaraz aritu ahal izan gara, baina badago muturretik buztanera dena erderaz bete behar duenik ere; hori da bere eskubidea.

Ni izandako Zorroagan gauzak errazago baziruditen ere, buruan daukat nola, aurreko urtean euskaraz

izandako gai bat, gu iristean hizkuntza bakarrean (gaztelania, nola ez?) emateko intentzioarekin zebiltzan, atzeraka karramarroen modura, eta, burua ez makurtuz gero, erroskila dotore bat jasotzeko mehatxua hartu izan genuen. Zorionez gauza ez zen hainbesteko ilundu, eta, atea jo eta jo, kurtso erdikaldera gure eskubidea betea ikusi genuen.

Beti horrela gertatzen al da, ordea? Belarri bat apostu, ezetz.

Beraz, bere logotipoan "eman ta zabal zazu" delakoa erakusten digunean, erderazko irakaskuntzari buruz ari da? Ez luke, orduan, hobe "Universidad Autonoma del Pais Vasco-Español" izena hartzea?

Egunkarien bitartez jakin izan dut Udal Euskal Unibertsitatearekin besarkadak estutu nahian dabilela, euskararen normalizazioa lortzeko nahitaezko dakusaten unibertsitatearen euskalduntzeari bidea errazteko ahaleginetan. Egoera aldatuko den itxaropenik bada oraindik; egun, ostera, UPV hizkiak EHU izena baino dotoreago daramatza soinean.

**Argitaratzailea**  
Elgoibarko Izarra  
Kultur Elkartea  
☎ 74 16 26

**Laguntzailea**  
Elgoibarko Udala

**Zuzendaritza**  
Itziar Agirregomezkorta  
Alberto Agirrezaldegi

**Hizkuntza Arduraduna**  
Anjel Ugarteburu

**Erredakzio kontseilua**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

**Kazetaria**  
Ainhoa Lodoso

**Maketatzailea**  
Maite Rementeria

**Publizitatearen diseinua**  
Luis Mari Zubiaurre  
Maite Rementeria

**Publizitatea**  
Amaia Leiaristi

**Administrazioa**  
Josune Fernandez  
M. Angelez Ortuoste

**Kolaboratzaileak**  
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arriabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Jon Eugi, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aitor Lodoso, German Meabebasterretxea, Susana Mugika, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Sagundo Raigoso, Andoni Rementeria, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta, Javier Zarzuelo.

**Banaketa arduradunak**  
Imanol Larrañaga  
Inaxio Garmendia

**Helbidea**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**Inprimategia**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**Tirada**  
3.000 ale

**Lege gordailua**  
SS-1.038/92

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**DEKORAZIOA**

**PROIEKTUAK**  
**ERREFORMAK**  
**ALTZARIAK**  
**OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

**Fotero**

**OKINDEGIÀ**  
**OPILDEGIÀ**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

**Berezkoa ote?**

Gaur egun gure erreallitateak, emakume guztiona, gazte izan ala ez, errealitate zapaltzaile batean dihardu, non biolentziak funtsezko parte duen. Bizi garen gizartean, emakumeen kontra ematen den biolentzia zerbait partikular, anekdotiko eta natural edo berezko bezala ikusten da.

Berezkoa da, NOSKI! jaiotzen garenetik bigarren mailan gaudela, "sukaldetxoetara" jolasten eta menpetasunean heziak.

Berezkoa da eskola edo Institutuan Historiaz

hitzegitea emakumeok izendatu gabe, sekula parte izan ez bagenu bezala.

Berezkoa da, familiak, instituzio modura, dago-kion parte hartzea emakume egiten gaituen orduan, esanekoak, pasibak... menpekoak, printze urdinaren zain.

Berezkoa da, ongi saritutako lanpostu batetara eskubiderik ez edukitzea eta krisialdian falta gutxien egiten dugunak izatea.

Berezkoa da, publizitateak, modak eta komunikabideek sexu objektu eta kontsumo erakargarri bezala erabiltzea.

Eta emakumeok, inposatutako berezkitasun guzti honen kontra erbelatzeko gai garenean biolentzia erabiltzen omen dugu; baina ez bakarrik zirkustantzia konkretuetan.

Erasoa etengabea da, nahiz eta ez erbelatu.

Biolentzia sexistak, aspektu guztietan etengabe emakumeengan erabiltako botere maskulinoa adierazten du, bereziki emakumearen gorputzean erabiltzen dutena.

Hain da egunerokoa biolentzia hau, hain dugu ikusia eta ikasia, gure bizitzetako parte bat bezala hartu dugula. Eta dena

EMAKUME jaio garela-ko.

Gizarte hau matxista eta patriarkala izatetik alda dadin, inplikaturik dauden instituzioen alde-tik ekintza politiko konkretuak esparru guztietan eskatzen ditugu: hezkuntza, publizitatea, prentsa, ikerketa e.a.

Eta gure aldetik, emakumeongandik, garapen pertsonala eta burujabetasuna izateko gaitasuna dugula argi izan, geure buruez dugun balorazio falta gainditu behar dugularik.

**Elgoibarko Emakume Taldea**

**ITZALA Edergintza**



- *Aurpegi tratamenduak*
- *Gorputz tratamenduak*
- *Masaia*
- *Sauna*
- *Solariuma*

San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 74 43 03




**Aste Santuko oporrak direla eta, apirilaren 9 an EZ DA elgoiBARREN ATERAKO. Hilaren 16an izango gaituzu berriz buzoian.**

**ASESORIA GOZAR**

**AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

**Hertz**  **Autobusak Rey Quiroga**

GIDARIRIK GABEKO AUTO ETA FURGONETAK ALOKATZEN DITUGU



BILKETA-BANAKETA ZERBITZUA: EIBAR, ERMUA, BERGARA, ARRASATE, ZARAUTZ, DEBA, ONDARROA ETA AZKOITIA

PREZIO BEREZIAK KONTSULTA ITZAZU



ERRESERBAK EGITEKO: TFNOAK: (943) 74.36.50- 54 FAX: (943) 74.38.93



**Z**azpi neskatila hauek “Kroke”an jolastu ondoren ateratako argazkia da hau. Argazki honek 46 urte inguru ditu, 1947. urtekoa izango da, gutxi gora behera. Zer garai polita eta zelako ondo pasatzen genuen! “Kroke” joku hau, egurrezko pelota eta mazuarekin jolasten zen, alanbrezko lauki bat egin porteria formarekin eta lurrean sartuta. Orduan pelota bertan zehar pasatzea eta bide batez kontrarioaren pelota baztertu edo eliminatuz jolasten zen.

Urte asko igaro dira eta ia ez gara gogoratzen edo lausoturik gogoratzen dugu behinik behin. Gure beste joku batzuek: kanikak, “al pañuelito”, txorro-morro, kolorezko orratzak, futbola, txinge-

rinean, kromoetan, tabak, diabolarekin eta abar luze bat. Gaur ia ahaztuak.

Zuek, gaztetxook, galdetu zuon gurasoei, burua azter dezatela, gogora ditzatela ea zertan eta nola jolasten edo jokatzen zuten, honela elkarri lagunduaz, gurasoek gogoratzen eta zuek ikasten, une alai bat pasa dezakezue.

Argazkian agertzen diren neskatila hauek, ezkerretik eskuinera: **Maria Dolores Iriondo, Libe Ansola, Lolita Astigarraga, Garbiñe Gorostiza, Teresa Larrañaga, Garbiñe Uriquen eta Lolita Canales.**

**Lolita Canales**

San Bartolome 9 ☎ 74 07 44

**Richi Fleapaindegia**

**KIROMASAIA**

- GERRIKO MINAK - ERREUMAK
- ZAINTURATUAK - ARAZO MUSKULARRAK

Errosario 6 - 1 Tel. 74 30 11

**DEBA GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Rosario 34, 1 ez. Elgoibar  
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53

# Aintzinako ikazkinen erara

Martxoak eskaini duen epelaren babesean, Pedro Arriola eta Juan Jose Arriola, baserritarra bata eta tailerreko langilea bestea, ikatza egiten aritu dira Mendaroko *Itsasoeta* baserri inguruan. Ikazkina, Euskal Herriko ogibide aberatsa izan zena, aintzinako aldietara begira jartzen gaitu eta, gertuagotik ezagutzeko parada da honoko hau.



↳ Txondorrek txingar gorri eta bizia eduki behar du etengabe.

**B**i ikazkin hauen lana aztertzeraz edota begiratzera hurbiltzen den oro, aurpegia belztuta eta erropak ikatz kolorez eginda bueltatuko da ziurdanik. Kuriosoak eta kaze-tariak etengabe etorri dira Pedro eta Juan Joserengana, burutzen ari diren lanagatik galdezka. Dagoeneko egur-ikatz prest dago baina aurretik izugarritzko lana egin behar izan dute bi ikazkin hauek.

Ikatza, mendi tontor antzerako batetik ateratzen

---

**Txingarrak barrena erretzen duenean, sua puntaraino heldu behar da, eta horrela bueltan-bueltan guztiak hartzen du su.**

---

da. Txondorra egiteko, egurra lortu behar da lehenengo. Gazte zenean, Pedrok, baserrian egin izan du egur-ikatz. Gaztaina eta Pagoa erabiltzen zuen orduan. Orain, ordea, artea soilik erabili du bikote honek ikatza egiteko.

Txondorra egin aurretik, lurrean gurutze formako makila bat sartzen da eta haren inguruan artea moztu eta tolestu egin behar da. Behetik gora egurra jartzen da, goiko puntara heldu arte. Makila ateraz gero txi-

minia edo kevide antzeko bat gelditzen da eta handik behera txingar pusketak botatzen dira egurra erretzen joan dadin. Txingarra bukatu ahala berriro puntaraino txingarrez bete behar da. Txingarrak barrena erretzen duenean, sua puntaraino heldu behar da, eta horrela bueltan-bueltan guztiak hartzen du su. Txondorra lur errearekin tapatu eta ikatza erretzea besterik ez da falta. Pedrok eta Juan Josek egin ahalak egin behar izan dituzte

**BETI ARGi, S. L.**

Erregalu artikulak  
Instalazio orokorrak  
Sukaldeko tresneria.

**ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44.**



**24 orduz zuekin**


Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar  
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

txondorrean zabaltzen diren zuloak berehala tapatzeko. Egur zatiak sartu eta makilaz barrenera bultzatzen dituzte, txingar bihur daitezzen.

Hamaika egunez eduki dute Pedrok eta Juan Josek txondorra erretzen. Egun osoz eta gauez ere zelatan egon behar izan dute txingarrak bere horretan mantentzeko.

Txondorraren bi metroak metro t'erdira murrizten direnean kanpoko pusketak kendu eta lur errearekin nahasten dute berriro gainean jartzeko. 24 orduz horre-

**18 tona egur erabili dute 4 tona ikatz egiteko. Ondoren, taberna eta soziedadeetan salduko dute ikatza Pedrok eta Juan Josek.**



Txondorrean zulorik egin ez dadin zaindu behar da.



Estalpe honetan pasa dituzte hamaika egun.

la eduki eta ikatza batzeko prest egongo da.

18 tona egur erabili dute 4 tona ikatz egiteko. Ondoren taberna eta soziedadeetan salduko dute ikatza Pedro eta Juan Josek.

Salmenta ez da bereziki onuragarria izaten. Hau da, motoserra hartu eta menditik arbolak ebaki, eskuz banan banan bidera bota, traktorearekin bertara jeitsi, horrenbeste egun eman egurra egosi arte eta, ondoren dena garbitu eta batu, egia esan, meritu handiko lana da, dirutan ordain ezin

daitekeena.

Aintzinako erara ikatza egiteak duen lan gogorraz gain, eguraldia ere zaindu behar izaten da. Haizea da lan honetan etsai txarrena. Egun batean, haize gogorra atara eta kanpamendu osoa hankaz gora geratu zitzaien. Baina zorionez anekdota hutsa besterik ez zen izan.

Bi gizon hauen hurrengo asmoa, harri-ikatza egitea da. Iraupenez motzagoa, baina lana gogorragoa dela komentatu digu bikote xeble honek.

**karkizano**  
San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

**arrieta modak**  
San Bartolome 18  
74 08 49

**INTERIORES**

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.

**PUB**

**elgoibar**

# Zer da zuretzat Aberri Eguna?

Gogoan ditut, txiki txikitatik etxean entzuten nituen kantua. Nire amama Jesusak (Seroriak) abesten zidan "Gora Euskadi, bizi bedi, Gora Sabino Arana Goiri. Jaungoikoa, lege zarra, Gora Euskadi Askatuta. Espainia espaino-lentzat, Euskadi euskotarrentzat".



Zalantzarik gabe Aberri egunak garrantzi handia izan du 1960. urte inguruan hasi eta Frankismo denbora bukatu arte, batez ere nik ezagutu ditudan urteetan.

**O**roitzen naiz, nere lehen Aberri Egunaz ere. Aralarren izan zen eta ni orduan gaztetxo nintzen. Osaba Roke eta izeko Karmenekin autobusean joan nintzen. Bapatean ikurrina jarrita zegoela konturatu eta denok gure ikurrina ikustera joan ginen. Jendea emozioz beterik zegoen eta nik, harrituta, zerbait berezia sentitu nuen.

Niretzat Aberri Eguna, euskaldunak garela aldarrikatzea da, egiazko garraxi gogor bat lau haizetara bidaltzea gure Nazio eskubideak errebindikatuz. Bainan Aberri Egunak ez du horretan soilik geratu behar; gure subiranotasuna lortu arte, egun guztiek izan behar dute Aberri Egunak. Egunero borrokatu behar dugu (borroka hitzari zentzu gaizto hori kenduaz) gure Hizkuntza Nazionalaren alde, Zazpiak Bat batasun eder hori lortu arte, gure ekonomiaren jabe izan arte eta hor ezin ditugu ahaztu hainbat jende, beren etxeak utzi eta eskubide horiek lor-

tzeko bidean erori direnak: preso, errefuxiatu, deportatu eta izkutuan dabiltzanak.

Aberri Eguna ez da Apirilaren 11an balkoietan ikurrina jartzea, bazkari bat egin eta mitin batean Euskadi Nazio bat dela esan ondoren gure Aberria Espainiari saltzea. Aberria ez da egiten Corcueraen legea onartuz, euskal presoen egoera latza mantenduz, euskararen aurka borrokatuz; Egin, Egunkaria, AEK eta hainbat proiektu euskaldun mespreziatuz eta boikoteatuz. Aberria ez da egiten poltronetatik, Herriaren nahiak bultzatuz baizik.

Beraz, ez dugu lortuko Aberri Eguna oso osorik Independentzia eskuratu arte, gure preso, errefuxiatu eta deportatu guztiak etxeratu arte, gure plaza, kale eta eskoletan herritarrak euskeraz mintzatzen ikusi arte.

Orduan BAI, ikurrinaren babespean Aduretik Ebroraino ospatuko dugu benetako **ABERRI EGUNA**, benetako **BAKE EGUNA**.

**Kurutz Castrillejo**

**F**rankismo denborako diktadura basatiak eraginda garai hartako eskoletako maixu gehienek heziketa eta egoera politiko hura medio, abertzaletasuna gazte gehienek ezkutuan zegoen, gehienok euskaldunak izan arren.

Urte haietan hasi eta ondorengoetako Aberri Egunak, burruka modu bat izatetik aparte, konfirmazio patriotiko bat ere izan ziren. Euskaldunon nortasuna publikoki errebindikatzeko izpiak kalera irten ziren, urtez urte jende gehiago biltzean manifestazio haietan. Nolabait hainbat urtetan zapalduta eta buru makur zegoen jende askorentzat egun hori ezinbestekoa izaten zen.

Franco hil ondoren, alderdi politikoen legalizazioa gertatu zen. Aberri Eguna kapitalizatu nahia etorri zen, gero eta nabarmenago. Eta honekin batera alderdi bakoitzak bere konsignekin eraman du egun hau.

Baina, hala eta guztiz, Aberri Egunak beti emango dio bere irrika abertzale sentitzen den guztiari. Egun hau tolerantzia eta askatasun osoarekin ospatu ahal izatea litzateke neure gogoia. Bakoitzak gustu duen erara, esan nahi dut.

Ez naiz egun seinatu batean konportamendu baterakoiak erabili beharraren zale. Kunplimentu bat balitz bezala, inguruko esamesek eraginda.

Aberri Eguna ospa dezagun, hots, alderdien konsignak jarraituz mahi duenak edo eta, familiarekin egun pasa egin edo etxean bazkari berezia janaz, korbata jantziaz, meza nagusira joanaz, habano eder bat dastatuaz, parranda eder bat eginaz, edo eta, zergatik ez, barau eguna eginaz.

Horrenbeste aukera eduki eta gero, merezi du ospatzeak.

**Felix Arrizabalaga**



# Zer da zuretzat Aberri Eguna?



**Mari Angeles Elizburu**  
40 urte, tabernaria

Oraindik ez dago ospatzeke gauza handirik. Aberri eguna erreibindikazio eguna da niretzat. Normalian kanpoan ospatzen dugu.



**Felisa Balzola**  
60 urte, etxekoandrea

Bai ospatzen dugu. Baina gaur egun ez da berdina. Jai eguna denez, mendira urten eta han bueltia eman eta kitto.



**Jose Antonio Isasti**  
32 urte, espezialista

Euskaldunok gure aberria ospatzen duguneko eguna da. Gaztetan Ezcaray-ra joaten ginen, baina orain, hurrekin, ez da lehen bezala.



**Marcelino Gomez**  
55 urte, jubilatua

Aberri eguna euskaldunon eguna da. Familian ospatzen dugu eta txanpana edan baldin ba leike, hobe.



**Itziar Elorza**  
40 urte, administraria

Etxean ospatzen dugu. Baina bestela ez, ez gara hortik irteten. Noizbait urten izan gara.



**Julian Azkue**  
41 urte, argazkilaria

Lehen ospatzen genuen eta kanpora irteten ginen. Baina orain, opor garaiak direnez, ez gara inora joaten.

**EIBAR**

**OSASUNDEGIA**

- |                            |                          |
|----------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia             | 9- Ortodontzia           |
| 2- Kardiologia             | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirurgia                | 11- Pediatria            |
| 4- Zirurgia maxilo faziala | 12- Sikiatria            |
| 5- Dermatologia            | 13- Radiologia           |
| 6- Ginekologia             | 14- Traumatologia        |
| 7- Laborategia             | 15- Urologia             |
| 8- Barne medizina          |                          |

Urkizu Pasealekua, 11.  
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

**NAVA**

Jupresoneak  
Jupresoneak  
Jupresoneak  
Jupresoneak  
Jupresoneak

Sta. Ana, 44  
Tel 74 44 51



## NAPARHEID

Naparheid euskara hutsez eginiko fanzinearen 10. zenbakia salgai dago. *Naparheid* ek komiki gehigarri bat ekartzeaz gain, Negu Gorriak, Silveira eta Xabier eta Hualolote taldeen kanta bana duen singela erregalatu-ko du ale honetan. Fanzinea 400 pezetaren truke eskura daiteke honoko taberna hauetan: Txuri-beltz, Oraiko, Lanbroa eta Oiz-Mendi.

## UDAL ZERGA

Kotxeen Udal zerga ordaintzeko epea apirilak 15ean bukatzen da. Zerga ordaintzeko Udaletxeko diru-biltze bulegoetara jo behar da astelehenetik ostiralera, goizeko 11ak eta 13ak bitartean.

## ZAZPIKI

Zuzeneko emanaldien aldeko apustua egitea erabaki zuten martxoaren 20an Zazpiki Irratiak eginiko batzarrean. Futbol emanaldiak finkatuta daudenez, Udal Plenoak zuzenean emateko baimen eske idatzi dute Udalera, datorren plenoan frogak egiten hasteko. Bestetik, diru beharrez daudenez, musika kate bat zozketatzea erabaki dute. Txartelak salgai daude 125 pezetatan.



**KORRIKAREN ospakizunen artean Plazako frontoian Komikiak** nola egiten diren ikusteko aukera izan genuen. Argazkiko haur mordoska honek komikigile hobereenen estiloa ez eduki arren, han ibili ziren larunbat eguerdian komiki lanetan. KOKOEkoe, berriz, KORRIKAREN inguruan, bi komiki tira marraztu zituzten.

## Ikastolako antzerki bideoa sarituta

Ikastolako irakaslea den Jabier Larrañagak egindako "Irudimenez Ekin" bideoa Euskadiko Kutxak antolatutako *I Sketch Lehiaketaren* irabazle izan da. San Anton ondorengo Ikastolako jaialdian Edurne Lasak zuzendutako Antzerki Tailarraren "Irudimenez Ekin" antzeslanean oinarrituta dago bideoa. Euskadiko Kutxak antolatutako lehiaketan 140 bideo aurkeztu ziren eta guztien artetik Ikastolakoa atera zen garaile. Saria, ikasleentzat lau egunetako Eurodisneyra bidaiaria bat da eta Korsikara beste bat, irakasleentzat.



# URZELAI

## ELEKTRIZITATEA-ARGIGINTZA

Santa Ana, 12-14 - Tel. 74 13 76 Elgoibar

# HISPANIA ZURICH

## C. Romera

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar.

Tel: 74 07 52 - 74 29 08

## KORRIKAK hiru elgoibartar omendu zituen

Pasa den ostiralean Felix Etxeberria "Parapan", Jabier Zengotita "Patri" eta Jose Gurrutxaga elgoibartarrak omendu zituen KORRIKAK. Gotzon Garate idazle elgoibartarrak omenduen aurkezpena egin ondoren, KORRIKARI zintzo lagundu dioten hiru elgoibartar hauen euskara eta herriaren aldeko lana goraiatu zuen. Gotzon Garatek omenduekiko izan zituen hitz hunkigarrien jarraian, KORRIKA eta euskarari buruz hitzegi zuen. KORRIKAN parte hartu duen jende multzoa ikusita euskarari zaion maitasuna eta atxekimendua frogatu dela adierazi zuen irakasle eta idazle ezagunak. "KORRIKAK uste bat du asmoz: Euskal Herri osoa zinez, euskaldun egin, euskaldunen kontzientziak sendotu eta bihotzak piztu". Gotzonek euskara eta euskaldun izatea handia dela adierazi zuen eta KORRI-




KAK horretarako egin duen lana azpimarratu zuen.

Ekitaldiaren amaieran German Meabebasterretxea eta Jabier Arrizabalaga Ziarda bertsolariak beraien omenalditxo eskaini nahi izan zieten omendutako hiru elgoibartarrei.

Argazkian Gotzon Garate, omenduetariko bati garaikurra ematen.

## 9 ikasleren marrazkiak Gipuzkoako zigilu lehiaketara

Elgoibarko Filatelia Elkartek antolatuta eta, Udalaren laguntzarekin, IV. Eskolarteko Filatelia Lehiaketan parte hartu duten haurren marrazkien erakusketa egon da ikusgai martxoaren 28a arte. Marrazkien gaia sellu bat egitea zen. Ikastetxe bakoitzak hiru marrazki aurkez ditzake Probintzia mailan egingo den hautaketan eta honako hauek izan dira 343 marrazkiren artean, Elgoibarren aukeratuak: Herri Eskolatik, Silvia Crespo, Alberto Perez eta Cipri Migales. Ikastolatik, Mikel Arzamendi, Cinthia Agea eta Iosu Gabilondo eta azkenik Pilarretik Iban Suarez, David Feijoo eta Leire Retolaza. Marrazkiak botazioz aukeratu dira, herriko marrazki eta komiki taldeen laguntzaz.



**Mandiola S.L. Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



**UDA  
BERRI  
ELGOIBAR**

Mariano Irigoien:

# "Asko gustatzen zait bidaiatzea"

Mariano Irigoien "Eroski-bidaiak" Eibarren daukan bulegoko zuzendaria da. Agentziak eskaintzen dituen zerbitzu eta

erraztasunak azaldu dizkigu. Bestalde, Aste Santurako pare bat ideia ere bai.

- Zein da zure lana eta noiz hasi zinen?

- Nere lana bidaiaria antolakuntza da edo, hobeto esanda, jendearen bidaiatzeko nahia betetzea. 81eko abuztuan hasi nintzen, beraz, 13 urte daramatzat enpresa berean.

- Ze motatako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

- Gaur egun mota guztietakoak ditugu. Beti ez dugu izan posible mota guztietako antolakuntzak egitea, baina orain oporraldiak, enpresetako bidaiak, ikas-bidaiak, ezkon-bidaiak, 3. adineko bidaiak eta abar (autobusak, jateak...) antolatzen dugu.

-Jendeak zer leku atsegin du, batez ere?

- Garaien arabera dago. Hiru garai nagusi daude: Aste Santuko oporrak, udakoak eta edurra. Laugarrena bitartean daudenak osatuko dute: 3. adina edo abuztutik kanpo oporrak hartzen dituztenak e.a. Espainia mailan, gehien saltzen dena irlak dira: Canarias eta Mallorca. Penintsula barnean Benidorm eta Costa del Sol izango lirateke. Bestalde, azken



**"Espainia mailan gehien saltzen dena irlak dira; Canarias eta Mallorca".**

urteotan asko altxatzen ari dena "Landak" dira, gertu daudelako eta merkeak direlako. Internazional mailan nabarmenena Karibea da: Republika Domicana, Cancun, e.a. Puntualki begiratuta Aste Santuan adibidez, Paris, Londres, Amsterdam eta Italia dira gogokoen.

- Gazte eta 3.adinekoentzat ba al duzue bidaia alternatiborik?

- 3. adinak garai bat edukitzen du markatuta. Inersioaz aparte, hau

Urritik-Aste Santua arte izaten da eta hor ere egiten dugu lan. Beraientzako katalogo apropos bat izaten dugu bai irlatarako eta bai Benidormerako.

Gazteentzat produktu berezi bat egoten da tenporada nagusian, abuztu aldean; beraien neurria egindako bidaiak: hotel ez hain nabarmenak, ibilaldi flexibleagoak... Gero puntualki baita beraien neurria antolatutakoak ere, adibidez, bidaia kultural bat.

- Lanak bidaiatzeko aukerarik ematen al dizu?

- Bai; gu bidaiaria saltzailerak garenaz, norberak aukera dauka bidaiatzeko, gustatzen zaion neurrian. Neri asko gustatzen zait bidaiatzea eta aparte nere lana denez, asko, asko bidaiatzen dut.

- Zein izan da bisitatu duzun lekurik bitxiena?

- Leku bitxiak asko daude; batekin garatzen Txinarekin geratzen nintzateke.

- Aste Santurako zer gomendatuko zeniguke?

- Ni neu, bost egunetarako, naturarekin kontaktuan egotea gustatzen zaidanez, "Picos de Europa" edo Extremadura aldera "Ruta de los Conquistadores" egitera joango nintzateke. Kosta, Benidorm, Salou... gero ere hor egongo dira. Bost egun hauetan nahiago izaten dut itinerario txiki bat egitea Salamanca ezagutu.

**Belen Arrizabalaga**

## Jose Zuazubizkar

### *Caritaseko arduraduna*

- **San Anton ala San Bartolome?**
- Igual ohitxuragatik, San Bartolome, baina bixak parian, igual xamar.
- **Monagillo izan al zinen umetan?**
- Ez. Bueno, batzutan bateonbat falta zanian laguntzen naban.
- **Eta izan al zenuen eleizan gaiztakeriak egiteko tentaziorik?** - Ez, ez.
- **Egia al da Aste Santuan apaizei hankak garbitzen zaizkiela?**
- Bai. Ostegun Santu egunian, sekularrek apaizei garbitzen dizkiete.
- **Apaiz frustratua al zara?** - Ez, sekula ez dut eduki apaiz izateko asmorik.
- **Zelibatoa bai ala ez?** -Bai.
- **Noizko emakumeak apaiz?** -Itxurarik ez diot ikusten, oso zaila izango da.
- **Lau seme-alaba eta guztiak neskak...** - Bai eta primeran. Oso pozik!.
- **Inoiz konfesatu ez duzun pekatuak?** -Ez, denak konfesatu ditxut.
- **Zein da elgoibartarron pekatuak handiena?** -"Pecado por omisión" esaten dana. Mezetara juan baina gero, eleizatik kanpo lanik ez egitia besteen alde.
- **Mirariak egiteko gaitasuna izango bazenu, nola erabiliko zenuke?** -Batak bestea maita arazten.
- **Otoitzak errezitatu ala abestu?** -Otoitzak irakurri eta gero, isiltasunean, erreflexionatu egin behar dira.
- **Zer da fedea: sentimendu bat, ohitura ala beharra?** - Neretzako behar bat.
- **Nori/zeri jarriko zenioke arantzaz eginiko koroa?** - Munduan agintzen dauden diktadore guztiak.
- **Barkamena zeren truke?** - Barkamenak ez dauka trukerik. Nik norbaiti barkamena ematen badiot ezin det horren truke ezer eskatu.
- **Umetan izan al zenuen heroirik?** - Ez.
- **Errenkarnatzekotan zer edo nor izan nahi zenuke?** -Ez jata sekula burutik pasatu.
- **Hil eta gero?** -Zoriontasuna egongo dala esaten digute eta horretan esperantzan bizi gara.



Jasone Osoro

## BERTSOTAN

### ABERRI EGUNA

Doinua: Amurizaren doinua

Apirilaren hamaika horrek jarri nau hemen kantari zuregatikan abestutzeko ez nago batere nagi gure lur zaharra maite dugula Igandez zaigu nabari modu honetan egiten dizut ilusioaz opari Ipar-Hegoa, Eki-Mendea mila zorian Euskadi.(BIS)

Krisia gora krisia bera egoera larri-larri gure herriak igaro ditu antzerakoxeak sarri jatortasuna, apaltasuna euskaldunon ezaugarri nahiz eta orain aurkitzen garen lasaitasunan egarri Euskal Herria beti izan da denentzat eredugarri. (BIS)

Josu Guenetxea



## XIRULĀ

*Hamburgeseria*

**Hanburgesak  
Sandwichak  
Saltxitxak  
Solomoa  
Txanpiak plantxan  
Bokatak**

Plaza txikia z/g Tel: 74 36 95

# Kopilan

FOTOKOPIAK

PLANOAK

ENKUADERNAKETAK

Ibaiarte Polig. Industrial, A-6 Tel. 74 35 51 - Fax publikoa 74 00 12

## Gorka Garate Andorrako Judo txapelketako irabazle

Pasa den astebukaeran lau judoka elgoibartarrek, Gorka Garatek, Egoitz Morak, Jabier Quintanok eta Zipri Migalesek Andorrako nazioarteko Judo Txapelketan parte hartu zuten emaitza ezin hobekak lortuz. Gorka Garate eta Egoitz Mora, pasa den urtean txapelketan izan ziren txapelketa honetan eta, aurten ere, hala izan da, Gorka Garatek urrezko domina lortu duelarik eta Egoitz Morak brontzekoa. Elgoibarko Ibai taldeko judokak Eibarko Kalamua taldearekin batera abiatu ziren Andorrara eta parte hartu zuten 33 judoken artean, 32k lortu zuten domina.

## Txirrindulari elgoibartarrak apal ibili ziren

Lehen urteko kadeteen kategoriako "III Iberdrola Saria" lasterketan *Zaer Motor* taldeko Igor Dieguez helmugara iritsi zen lehen elgoibartarra izan zen, lehenengoak egin zuen denbora berberaz. Bigarren urteko kadeteen "Urbite Trofeo" txapelketan Alexander Galarraga elgoibartarrak, *Muebles Olatz* taldekoak, laugarren egin zuen eta Pedro Cerviñok zazpigarren. *Ciclos Iturriaga* taldeko Iker Unzueta elgoibartarra, 14. postuan iritsi zen "IX. Loiola Saria"an.

Jabi Ferreño:

## "Mota guztietako arrainak gutxitu dira urazpian"

**-Nondik datorkizu urazpian ibiltzeko zaletasuna?** - 10 edo 12 urte nituenetik nabil kirol honetan. Hasieran fusila eta aletekin bakarrik, baina aurrerago ekipamendu hobea erosi nuen. Horrela talde bat batu gara Urbiz deitzen den taldea osatuz. Orain 45 inguru gara, Elgoibar, Eibar eta urazpiko espeleleologia egiten duten Mendaroko batzuk.

**-Zer dauka itsasazpiak erakar-garririk?** - Nik uste, oso jende gutxi ikertu duenez urazpia, daki-guna telebistan erakutsi digutenez, ba, oso erakargarria dela edozeinentzat. Manipulatu gabeko lekua da, guztiz naturala; gizonak ez du han eskua sartu. Oso gauza majoa da.

**-Zer dago gure kostaldeko itsasazpian?** - Benetan zoragarria da. Kutsadura zerbait dagoela igartzen da, baina urazpia ia ikutu gabe dago, animaliak, landareak... 5 eta 10 metro bitarteko sakoneran daude animalia eta landare gehienak. Hori da zatirik politena. Mota guztietako arrainak gutxitu direla igartzen da.

**-Arriskutsua al da kirol hau?** - Komenigarria izaten da gutxienez bi pertsona ibiltzea urazpian. Edozer gertatu ere, norbaiten laguntza



edukita errazagoa izango da estutasun batetik irtetea. Arriskutsua da zeurea ez den ingurune batetan zabilzako eta edozer gerta dakizuke, kalanbreak, digestio etena... Itsasoan sartu aurretik informatzea funtsezkoa da.

**-Non ibiltzen zarete buzeoan?**

- Lekeitio, Ondarru, batzutan Elantxobe aldean, Mutriku, Deba eta Zumaiarainoko kostaldean. Itsaso sakonean ez gara sartzen, gauza handirik ez egoteaz gain, deskonpresio arazoak gertatzen direlako. 50 edo 60 metroan "itsasakoneko kolikoa" deitzen dena gerta dakizuke eta ondorioz urazpian galdu.

• Adina: 32

• Itsasazpiko iluntasuna ala itsasgaineke argitasuna? Azpian nahiago.

• Hartu duzun arrainik handiena? 5 kiloko lubina.

• Istripurik? Ez. Kolpeak, kalanbreak, ebakiak...

**Iraegui**  
ERROTULAZIOA  
☎ 74 39 52  
San Antolin 74 37 06


*Muruamendiarrak*  
ELGOIBAR  
**GOZOTEGIA**  
San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean  
saiatzeko gara*  
Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bonboiak

LANDA  
HARATEGIA  
San Frantzisko 23, Tel. 74 27 58



URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



Arbitroaren lana ez da batere erraza izaten, herri mailako txapelketa batean aritu arren. Aurten bost lagunek arbitratzen dute Elgoibarko Futbito Txapelketa: Insaustik, Cazosek, Josebak, Carlosek eta Jose Angelek. Argazkiko Jose Luis Insaustik bost urte daramatza epaile gisa eta berak aitortu digunez, partiduetan izaten diren istiluak taldeek sortzen dituzte. Insaustiren ustez, "talde batzuk denbora pasatzera etortzen dira, izerdia botatzera, baina beste batzuren helburua irabaztea da eta hor sortzen dira arazoak". Dena den, arbitro izateak, baditu bere alderdi onak ere, urtero txapelketaren bukaeran arbitro eta antolatzaile guztiak afari batean elkartzen dira eta.

SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA

| A Taldea         | PARTIDUAK |       |       |      | Puntuak |
|------------------|-----------|-------|-------|------|---------|
|                  | Jokt.     | Irab. | Berd. | Gal. | Guzt.   |
| 1. KOSAKOS       | 11        | 8     | 2     | 1    | 18      |
| 2. A.R. EGAÑA    | 10        | 7     | 2     | 1    | 16      |
| 3. URASANDI      | 9         | 8     | 0     | 1    | 16      |
| 4. TXIRRISTAKA   | 10        | 8     | 0     | 2    | 16      |
| 5. KARKIS        | 10        | 4     | 4     | 2    | 12      |
| 6. RUA           | 9         | 6     | 0     | 3    | 12      |
| 7. ARROAK        | 10        | 4     | 2     | 4    | 10      |
| 8. KING-KONG     | 11        | 2     | 4     | 5    | 8       |
| 9. GORRIBELTZ    | 10        | 4     | 0     | 6    | 8       |
| 10. B. CASERIO   | 10        | 3     | 2     | 5    | 8       |
| 11. AMISTAD      | 10        | 3     | 0     | 7    | 6       |
| 12. TXINTXIMINAK | 11        | 1     | 3     | 7    | 5       |
| 13. LA PERLA     | 10        | 2     | 0     | 8    | 4       |
| 14. XIRULA       | 11        | 1     | 1     | 9    | 3       |

| B Taldea          | PARTIDUAK |       |       |      | Puntuak |
|-------------------|-----------|-------|-------|------|---------|
|                   | Jokt.     | Irab. | Berd. | Gal. | Guzt.   |
| 1. PEDRUSKO       | 11        | 11    | 0     | 0    | 22      |
| 2. AMETSA         | 11        | 9     | 1     | 1    | 19      |
| 3. GAR. GARCIA    | 11        | 7     | 1     | 3    | 15      |
| 4. LAGUN TOKI     | 11        | 6     | 1     | 4    | 13      |
| 5. TXURI URDIN    | 11        | 5     | 2     | 4    | 12      |
| 6. MINOX          | 11        | 5     | 1     | 5    | 11      |
| 7. A.R.E.         | 11        | 5     | 1     | 5    | 11      |
| 8. GAZTEAK        | 11        | 4     | 1     | 6    | 9       |
| 9. UNIV. DE CHILE | 11        | 3     | 3     | 5    | 9       |
| 10. LANBROA       | 11        | 3     | 2     | 6    | 8       |
| 11. M.R.W.        | 11        | 2     | 4     | 5    | 8       |
| 12. FONT. JOSERRA | 11        | 4     | 0     | 7    | 8       |
| 13. BERROGEI DURO | 11        | 2     | 1     | 8    | 5       |
| 14. SPORTING      | 11        | 2     | 0     | 9    | 4       |

TALDE GOLEGILEENA

- PEDRUSKO .....46 gol
- LAGUN TOKI.....42 gol
- GARAJES GARCIA .....41 gol

GOLEGILE ONENA

- J. Romero (GARAJES GARCIA) .....26 gol
- Bermudez (A.R. EGAÑA) .....20 gol



GOL GUTXIEN JASO DUEN TALDEA

- URASANDI.....10 gol
- TXURI URDIN .....11 gol
- AMETSA.....13 gol



# La Union: Kirola eta ekologia ezkondu nahian

**Taberna giroan sortutako elkarte da. 1942. urtean, La Amistad taberna zen hartan, 42 lagun bildu ziren ehiza eta arrantzarako zaletasunak bultzatuta. La Amistad utzi eta Katei tabernan biltzen hasi ziren. Duela 18 urte, gaurregun duten lokala erosi zuten.**

**E**lgoibarko elkarterik handiena izango da, 400 bazkiderekin. La Union elkarteak, 1975. urte inguruan, Katei taberna itxi behar zutela eta, gestio eta arazo ugari gainditu ondoren, Kalamua kaleko lokala erosi zuten.

## Ehiztari eta arrantzaleak

Ehiztari eta arrantzale porrokatuak dira La Unioneko kideak. Hain zuzen ere, urte askotan arrantza eta ehizarekin zerikusia duten ekintzak antolatu izan dituzte. Aurten bost ekintza antolatzeko asmoa dutela esan digute. "Tiro al plato" deitzen dena, orain arte urtean hiru alditan egin izan dute, baina aurten behin bakarrik antolatuko dute.

Errekako arrantza lehiaketa Zumaian egin behar izaten dute, Elgoibarko errekak kutsatuta daudelako. Ehiza lehiaketa, ordea, San Migel bailaran egiten da. Bertan parte har dezakete, elkarteak kideez aparte nahi duten herritarrek ere bai. Patxi Arriola elgoibartarra bi edo hiru urtez eskualdeko irabazlea izan da eta Euskadiko txapelketan ere atera izan du lehen postua. Patxi Arriola irabazle izan denez eskualdeko ehiza txapelketan, aurten Elgoibarren ospatuko da.

Gabonak aldera "tiro pichon" antolatzen dute, eta garai batean Ehiza Txakurren Lehiaketa antolatzen zuten baina, pena



(1981)Ehizara egin zuten irtenaldi baten ostean.

handia badute ere, 1987. urteaz geroztik bertan behera utzi behar izan zuten. Lehiaketa honetan txakurra zen ehiztari eta jabeak aginduak bakarrik ematen zituen.

## Natura zaindu

Elkarte bezala, La Unionekoek urtean zehar herriko hainbat ospakizun eta jaietan laguntzen dute beste elkarte guztiek bezala. Baina guztiz garrantzitsua dena zera da: La Union elkarteak ehiztari eta arrantzale izateaz

gain, ekologistak ere badira. Orain arte, Aldundiak debekatu duen arte, San Lorenzo, Apraiz eta Saturixo errekak amurrain arraultzaz betetzeko ardura hartu zuten. Eta ia urtero, inguruko mendi eta zelaietan erbiak, untxiak eta epe-rrak askatzen zituzten. Kontzientzia ekologista sendoa dute eta debekatu-tako lekuetan arrantza egiten dutenak eta errekak kutsatzen dituztenak gogor salatu behar direla esaten dute.

## OILAGORRA BABEKIN GISATUA

**OSAGAIK:** 200 gr. bacon, 4 tomate heldu, irin goilarakada bat, 4 Oilagor, 300 gr. baba zuritu, ardo zuri basokada bat, 2 basokada salda, pipermina eta gatza.

**NOLA EGIN:** Kazuela batean, zatitan moztutako bacon-aren erdia jarri olio eta babekin. Su txikian egiten laga. Beste kazuela batetan, olio gehiago jarri eta gelditzen den bacon-a

eta oilagorrek ipini. Irin goilarakada gehitu. Irina iluntzen denean ardoa, salda eta tomatea gehitu, zurituta eta txiki-txiki eginda. Gatza eman eta 10 minutuz egosten utzi. Beste kazuelan egindako babak eta bacon-a gehitu eta 10 minutuz egosi. Gatza probatu. Pare bat minutuz egosi eta oilagorrek atera.

Plater batetan oilagorrek jarri eta kazuelakoarekin apaindu.

## FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1942  
**Bazkide kopurua:** 400  
**Urteko kuota:** 8.000  
**Presidentea:** Migel Angel Canales  
**Berezitasuna:** Arrantza eta ehiza  
**Helbidea:** Kalamua 21



# "Denok maite dugu gure herria euskaraz"

Zain egoteak dakarren urduritasunarekin eman zitzaion ongi etorria KORRIKA 8ari. Hamarrak pasata heldu zen Sigmako Zubira, han saltaka egiteko prest zegoen jende mordo batu zitzaiolarik. Plaza Handia ere, txandala jantzi ez zuten pertsonaz barra barra zegoen, guztiak txaloka.



**O**rdu laurden azkar batean pasa zuen herri osoa Markinarantz jarraitzeko. Honako hauek izan ziren erreleboak egin zituztenak: Lehena Txankakuak hartu zuen Saturixon, Gaindun Elgoibarko Club Depotiboak, Sigmako etxeetan Zazpikik, Sigmako Zubian Lanbide Eskola Institutuak, Plazan Felix etxeberrria, Jose Gurrutxaga eta Jabi Zengotitak, Muruan Ikastola, Herri Eskola eta Gurasoen Elkarteak, Banko Gipuzkoanon Etxepk, Loritoan Errotatxok, Maalan Morkaikok eta KOKOEk, Kartutxon

Mangat Parbatek (Uzuri optika), Orbean AEKk, Errosario kalean Elgoibarko Izarra eta BARRENEk, Plazan Elgoibarko Presoak, konbentuan HBk eta azkena Geminisen Baltasar, Kimetz eta Herri Gain elkarteek.

Bazkal ostetik hasia zen jadanik jai giroa KORRIKA txikiarekin. Hiru ikastetxeetako haurrak abiapuntu ezberdinetatik atera ziren guztiak Plaza Handian elkartzeko. Bakoitza bere banderatxo eta dorsalarekin kolore eta garrasiz bete zuten Plazako frontoia.



**GURBIL** *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua  
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

JOSE ANGEL ZABALA  
**URDAITEGIA**

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34

**MAITE**

GOZOTEGIA

IZOZKIAK

Berton eginak

San Frantzisko, 15  
Tel. 74 16 88



**3 Larunbata**

**16,00 GARE Irrati Afizionatu**  
Elkartearen bilera  
Tokia: Kultur Etxeko Hitzaldi gela.

**19,30 ZINEA**  
"Una monja de cuidado"

**4 Igandea**

**9,00 ESKOLAKO HAURREKIN**  
MENDIRA IRTENALDIA  
Plazatik Kalamua aldera

**10,00 KORRIKARAKO**  
AUTOBUSA  
Sigmako Zubitik  
Prezioa: 500 pta.

**10,30 UDAL BANDAREN**  
KALEJIRA

**11,45 FILATELIA**  
ELKARTEAREN URTEKO  
BATZAR OROKORRA  
Tokia: Kultur Etxea

**12,30 UDAL BANDAREN**  
KONTZERTUA  
Tokia: Herriko Antzokia

**16,30- 19,30 ZINEA**  
"Una monja de cuidado"

**5 Astelehena**

**19,30 ZINEA**  
"Una monja de cuidado"

**6 Asteartea**

**19,30 MORKAIK Oren BILERA**  
Tokia: Kultur Etxea

**7 Asteazkena**

**22,30 ESKORIATZAKO GORO-**  
SARRI ABESBATZA  
Tokia: Parrokia

**10 Larunbata**

**16,30 FUTBOLA**  
C.D. Elgoibar-Logroñes  
Zazpikik zuzenean emango du

**19,30 ZINEA**  
"La sombra del lobo"  
Zuzendaria: Jacques Dorfmann  
Aktoreak: Lou Diamond Philips,  
Toshiro Mifune

**11 Igandea**

**16,30-19,30 ZINEA**  
"La sombra del lobo"

**12 Astelehena**

**19,30 ZINEA**  
"La sombra del lobo"

**16 Ostirala**

**19,00-21,00 ERAKUSKETA**  
- FOSIL ETA MINERALAK  
- PLANO ETA ARGAZKIAK  
- BIDEO EMANALDIAK  
Tokia: Kultur Etxea  
Antolatzailea: **Leizarpe** espele-  
leologi elkarte.  
Hilaren 25a arte.

**MARTXOAN**

| JAIOTAKOAK  | HILDAKOAK   | EZKONDUAK   |
|---|---|---|
| <i>Jone Larrañaga Casquero</i><br>Martxoak 3      | <i>Julian Irizar Urcelai</i><br>martxoak 4 (56 urte)                | <i>Xabier Elustondo Unamuno eta</i><br><i>Idoia Mancisidor Rementería</i><br>(Martxoak13)               |
| <i>Alazne Martínez Revuelta</i><br>Martxoak 3     | <i>Alvaro del Valle García</i><br>martxoak 7 (92 urte)              | <i>Joseba Iñaki Beristain Álvarez</i><br><i>eta Amaia Ecnarro Bengoa</i><br>(Martxoak 20)               |
| <i>Estibaliz Bilbatua Beristain</i><br>Martxoak 8 | <i>Maria Benita Uribezteberria Arriaga</i><br>martxoak 11 (94 urte) | <i>Alfonso Jimenez Gandix eta</i><br><i>Maria Trinidad Carrasco Goza-</i><br><i>lo</i><br>(Martxoak 20) |
| <i>Maria Ferreira Santolaya</i><br>Martxoak 24    | <i>Ladislao Elorza Arrieta</i><br>martxoak 11 (33 urte)             | <i>Iñigo Barrenechea Carasa eta</i><br><i>Eduarne Arrizabalaga Loiola</i><br>(Martxoak 27)              |
| <i>Eduardo Santamarta Rey</i><br>Martxoak 22      | <i>Genaro Martín Bilbao Galarraga</i><br>martxoak 16 (70 urte)      |   |
| <i>Josu Atxa Nogero</i><br>Marxtoak 25            | <i>Juan Lizarraga Llanera</i><br>martxoak 16 (70 urte)              |   |
|   | <i>Mariano De Pablo Parmo</i><br>martxoak 18 (51 urte)              |   |

**Etxebizitzak**

Etxebizitza salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Maala inguruan.  
**Informazio gehiago nahi baduzu deitu 74 12 39 telefonora.**

Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.  
**Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.**

"Asolo Super-soft" (42zbk.) botak eta "Sofitex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,  
**Aritza 74 05 90.**

18 belozidatedun Mountain Bike bat saltzen dut. Kanbio sinkronizatuak, adarrak, "calapies"ak eta beste osagarri batzuk.  
**Prezioa: 38.000 pta. Astebukaeratan 74 15 35**

**Lana**

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.  
**Carolina 74 44 51.**

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.  
**Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.**

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.  
**Tel: 945-28 94 81 Deitu 8etatik aurrera.**

**Kontaktuak**

Musika egiten duen lagun talde bat gara. Lokalen bat alokatu nahi genuke entsaiuak egiteko. Alokatzeko moduan **lokalik baldin baduzu, deitu 74 33 66 telefonora eta Josurengatik galdetu.**

**Salerosketak**

Tituludun irakasleak **O.H.O.ko klase partikularrak** ematen ditu.  
**Alazne Tel.:74 28 53**

**MUY INTERESANTE**-ko zerbakiak saltzen ditut. Zerbakiak dira: 2,4,8,9,...15,17,18,...80. **NATURA**-ko zerbakiak saltzen ditut. Zerbakiak dira: 4,5,...57,58,60. Biak oso ondo zainduta daude. Ahal bada, nahiago nuke loteten saltzea. Prezioa negoziatuko dugu.  
**Interesatuak deitu hona 74 26 09 (Roberto).**

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.  
**Aitor: 74 22 74 Egun osoz.**

**ZODIAK** bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motorra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.  
**Tel.: 19 92 46 (Juanra)**

**ZOKOAN** musika taldeak entsaiatzeko lokala behar du. Lokala edo garaje hutsa alokatuko genuke. Urgentea da.  
**Tel: 74 15 74. Gerardo**

Ingeniero industrialak **matematika, fisika eta kimikako klaseak** ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.  
**Tel.: 74 13 11. Javier**

Organu **HAMOND** bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 ppta.  
**Alberto: 74 14 94**

*Martxoaren 30etik -Maiatzaren 30era*

*Udaberri-Uda*




Elgoibarko Merkatari eta Zerbitzu Elkarte

**Zozketa**

- ✿ **Sariak:** TXANKAKUAko dendetan gastatu ahal izango diren 35.000 pta.ko 6 erosketa txartel.
- ✿ **Zozketa data:** Ekainak 4
- ✿ **Sari banaketa,** ekainaren 24ean izango da Kultur Etxean.

# SEAT IBIZA BERRIA



TEKNOLOGIA ALEMANA

**ZATOZ  
BERRIKUNTZA  
GUZTIAK  
DESKUBRITZERA**

**SEAT**  
*Bai!*

**SEAT**

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 Eibar